


ARIZMENDIARRIETA-ren pentsamendu azterketa



En su día presentamos ya el libro «EL HOMBRE COOPERATIVO» de Joxe Azurmendi. El voluminoso tomo de más de 800 páginas recoge el pensamiento o ideario de José María Arizmendiarieta.

La vida de José María Arizmendiarieta, 1915-1976, ha tenido una meta: la humanización del trabajo. Con este propósito ha inspirado la experiencia cooperativa industrial más ambiciosa que conoce la historia.

Ya no es posible ignorar por completo su pensamiento. Pero un conocimiento superficial tampoco puede bastarnos ya. Hay que empezar a reconocer que el cooperativismo es más que unas fábricas: es una filosofía del hombre. El pensamiento de Arizmendiarieta es, ante todo, un proyecto de futuro que nos llama a «levantar al pueblo con la fuerza del pueblo». Como un servicio al trabajo libre y humano, esta obra ofrece el primer estudio serio de aquel pensamiento en toda su amplitud.

Hemos pedido a Joxe Azurmendi que, de alguna manera, nos sintetice el PENSAMIENTO de Arizmendiarieta. He aquí la síntesis de un trabajo, la elaboración del libro en cuestión, de más de dos años:

Garbi esateko, nire lana ez da kooperatibismoaz; Jose Maria Arizmendiarietaren pentsamenduaz bakarrik da. Haren idazkietako pentsamendua aztertu dut. Eta, gero, saiatu naiz erakusten ere, nola pentsamendu hartatik proiektu kooperatiboa sortu zen.

ARRASATEKO EXPERIENTZIA

Harrigarria da zenbat liburu eta ikerketa dagoen Arrasateko esperientziaz eginda mundu guztian. Nire lana egiteko, lehenengo beste batzuek aurretik zer egin duten begiratzuz hasi nintzen. Horra, bada: berrogei eta piko liburu, berrehun eta gehiago artikulua, Frantzia, Holanda, Suedia, Britainia Handi edo Estatu Batuetako Unibertsitateetan egindako hamabost tesi inguru, aurkitu nituen.

Arrasateko esperientziak ikertzaileen begiak zorrotz dituela, ez dago dudarik. Sekulako interesa biztu du mundu guztian. Kooperatibak nola antolatu diren, nola organizatu dituzten inbertsioak, salmentak, etab., alderdi sozial eta ekonomiko denak xehe-xeheki aztertzen dituzte. Baina ikerketa horietan denetan bat bakarrik ez dago, esperientzia kooperatibo hau sortu, nola sortu zen, argitzeko. Eta, bereziki, sorrera hori zein pentsamendu moduk eragin zuen. Nik puntu horixe bakarrik argitu nahi nuen.

Gauza ezaguna da saio kooperatiboaren eragilea eta inspiratzailea Jose Maria Arizmendiarieta izan zela. Kooperatibak zein pentsamendutatik sortu ziren jakiteko, haren pentsamendua da, ezagutu beharko duguna. Bestalde, gauza horiek ez dira zerutik erortzen: gerra ondoko giroa ere piska bat gogoratu beharra dago. Ze,



Arizmendiarieta ere ez bait zen mundura dena bazekiela jai. Hasieran apaiz nahikoa kontserbadorea zen, garai hartako beste edozeinen moduan. Poliki-poliki, halare, bere inguruko lantegi kapitalistetan zer gertatzen zen ikusiz, estudiatuz, bere gogoetak ausnartuz, eboluzionatzen joan zen bere barnean. Horrela, urteetan, kapitalismoa gainditzeko proiektu bat bururatu zuen: euskal sozialismo bat, kooperatiboa, Euskal Herriko tradizio zaharretan oinarritua.

ARIZMENDIARRIETAREN IDAZKIAK

Nire lana ez zen posible izango, aurretik J. M. Mendizabalek, Lan Kide Aurrezkiaren enkarguz, Arizmendiarietaren idazki denak bildu eta ordenatu ez balitu.

Izan ere, nondik ezagutu orain haren pentsamendua? Arizmendiarietak asko idazten zuen, baina bere bizitzan ez zuen liburu bat bakarrik

argitara eman. Idatzitako beste gauza asko inoiz ez zuen publikatu (hitzaldiak, sermoiak eta hola-koak). Publikatu zituen gauzak berak, ia denak aldizkari txiki eta ezezagunetan sakabanatuta zeuden.

Mendizabalen bilduma, horregatik, oinarrizkoa da Arizmendiarietaren pentsamendua aztertze-ko. Handik eta hemendik, 727 idazki desberdin inguratu ditu, euskaraz eta erderaz, hamabost liburuki edo tomo haunditan bilduta.

Gainera Arizmendiarietak dena apuntatu eta jaso egiten zuen: Seminarioko lantxoak, gerrako paperak, bere ikasketetako apunteak, bidaietako gogoetak, sermoiak, dena. Azkenerako, mutil bati eskolan eman behar izan zion zigor bat ere apuntatu eta jaso egin zuen, agian gogortxoia izan zela ohartzuz. Material ikaragarri dago artxiboan, Arizmendiarietak zer egiten zuen eta nola pentsatzen zuen ikertzeko.

Eta horixe izan da nire lana: idazki guztiak irakurri, artxiboko materialak banan-banan ikusi, eta nola pentsatzen zuen atera. Nik, lan hau, Lan Kide Aurrezkiaren enkarguz egin dut. Hori bai, askatasun guztiarekin, neuk neritzon moduan, baina batez ere jende askoren laguntzarekin.

Hasieran, 1980ko ekainean lanari ekin nionean, oso gutxi nekien Arizmendiarietari buruz. Nire interpretazioak ez ziren beti oso zuzenak izaten: batzuetan letrari lotuegiak, besteetan informazio faltaz okertuak edo ilunduak.

Badakit, kortesjazko obligazio bat bezala izaten da, jendearen laguntza eskertzen dela eta horrelakoak esatea. Baina kasu honetan horrelaxe da, egia da, eta esan beharra dago: nire liburua «kooperazioan» bezala egina dago, batzuen eta besteen ohar kritikoei eta informazioei esker.

ARIZMENDIARRIETA HEZITZAILE

Kooperatibismoa sortu baino lehen, Arizmendiarietak hamabost urte zeraian Arrasaten. Ez





zen geldi egon. Kalkulua egunez-egun egiten bada, hauxe ateratzen zaigu: bere apaiz lanak eta obligazioak aparte, Arizmendiarrietak erabatera 2,7 egunez behin hitzaldi edo bileraren bat egiten zuela herriko gazteekin, jai egunak eta oporrak deskontatu gabe. Ikaragarria da, urtez-urte martxa hori eramateko. Gainera hor ez da kontatzen Eskola Profesionalean ikasleei egiten zien ordu erdiko hitzalditxoak, egunero-egunerokoa 1964 arte.

Horretaz gain Arizmendiarrietak, Arrasatera heldu eta segituan, liburutegi bat ipini zuen. Liburutegiaren inguruan ikastaroak antolatzen zituen, gazteen formazio sozialerako.

1943an Soziologiako Akademia bat ere sortu zuen. Hona hemen Akademian gazteek ikasten zituzten gai batzuk: arazo sozialaren kausak eta historia; jabegoa eta justizia soziala; lanaren duintasuna eta eskubideak; langileen parte-hartzea lantegiaren gestioan eta onuretan; kapitalismoa, sozialismoa, nazional-sozialismoa, nazional-sindikalismoa, etab. Gerra ondoko frankismoa orduantxe harro-harro zebilen: ausardia behar zen honelako lanetan sartzeko. Baina Arizmendiarrietak ez zen Goardia Zibilaren istilu batzuekin, edo

Gobernadorearen amenazoekin, ikaratu eta kikilduta geratzeko gizona.

Kooperatibismoa ez zuen Arizmendiarrietak «inbentatu». Harek egin zuena, gazteak hezitzea izan zen. Formazio sozial sakon bat ematea. Gero langileek berek sortu zuten kooperatibismoa. Inportantea da hori, aurretik egindako heziketa lana. Bestela, Arizmendiarrietak berak esaten zuenez, kooperatibismorik ez da sortzen. Eta dauden lantegi kooperatiboak berak atzera enpresa kapitalisten modukoak bihurtzen dira.

Kooperatibismoaren egiatzko indarra izpiritu kooperatiboan dago, eta izpiritu kooperatiborik ez dago heziketa lan luze eta sakon bat gabe.

Inor ez da betiko. 1976an hil zen bere Arrasaten Arizmendiarrietak bizkaitarra. Kooperatibista asko dago gaur Euskal Herrian, lehenengoen formazio eta heziketarik izan gabe kooperatibista egina. Eta, denei ere, bizi zen artean beti ematen zuen aholkua eta orientazioa falta zaie orain. Nire liburuak ezingo du bete hutsune hori. Baina kooperatibismo arizmenditarren izpiritua eta inspirazioa ezagutu nahi duenari, eta bere burua izpiritu kooperatibo honetan formatu eta hezi nahi duenari, uste dut laguntzatxo bat emango diola.

Arizmendiarrietari berari omenaldi hoberik ezin egin geniezaioke, haren izpirituari euskal kooperatibismoan bizi eta sendo iraunaraztea baino.

JOXE AZURMENDI